



## EGITASMOAREN IZENA

# AUZOKO HARRERA

## "ZUBI BAT EUSKARATIK" DEKALOGOKO ZEIN OINARRIRI ERANTZUTEN DIO

Harrera linguistiko ez formala eskaini

## AZALPEN LABURRA

Euskaltzaleen Topaguneko harrera egitasmoak herrietako harrera integrala eta linguistikoa osatzeko baliabideak eskaintzen ditu. Hau da, harrera formala, ez-formala eta informala uztartzen dituen eta euskaratik egiten den harreran sinisten du euskaltzaleen mugimenduak eta hori tokian-tokian egikaritzen duen proiektua da honakoa.

Horretarako, prozesu parte-hartzaile bat irekiko da non herritarrak beraiek diseinatuko duten harrera plan berria. Era horretan, herriko aniztasun kultural eta linguistikoarekiko sentsibilizazioa aktibatuko dugu eta herritar guztien gizarteratzea eta parte-hartzea ahalbidetu. Prozesuaren azken emaitza herri eta herritarren beharretara egokitutako harrera sistematizatu eta koordinatu bat izango da.

## HELBURUAK

1. Harrera duin integrala ahalbidetzea etorri berri den orori, jatorria kontuan hartu gabe.
2. Harrera egiteko protokoloa edo plana diseinatzea (aukeran, herriko baliabideak jasotzen dituen gida bat ere argitaratu daiteke).
3. Etorri berriei herriko/herrialdeko baliabideak ezagutaraztea eta tokiko egituretan beren parte-hartzea sustatzea.
4. Etorri berriek herriko dinamiketan eta egituretan parte hartu dezaten bultzatzea.
5. Herritarrak harrera duin eta integral bat egitearen garrantziaz sentsibilizatzea.
6. Euskara harrera planaren erdigunean kokatzea, betiere, hizkuntza aniztasuna aintzat hartuta.

## HARTZAILE ZUZENA(K)

Tokiko eragile, udal teknikari eta herritarrei zuzendua. Izan ere, horiek izango dira prozesuan parte-hartuko dutenak.

## FUNTZIONAMENDUA

Labur-labur azalduta, honako urrats nagusiak ditu egitasmo honek:

- \* Herriko eragileekin egiten den prozesu parte-hartzailea.
- \* Jasotako informazioaren bilketa.
- \* Harrera planaren egituratzea.

## AURREKARIAK

Bortzirietako Harrera plana

Soraluzeko Harrera plana.

## ANTOLATZAILEA(K)

Euskaltzaleen Topagunea.

Udalak

## KONTAKTUA

[aniztasuna@topagunea.eus](mailto:aniztasuna@topagunea.eus)